

BBVA FUNDAZIOA: IKERTZAILE ETA KULTUR SORTZAILEENTZAKO LEONARDO BEKAK 2018

Lehentasunezko ikerketa arloak:

- Oinarrizko Zientziak (Fisika, Kimika eta Matematika).
- Biologia eta Ingurumen eta Lurraren Zientziak
- Biomedikuntza
- Informazio eta Komunikazio Teknologia
- Ingeniaritza eta Arkitektura
- Ekonomia eta Gizarte Zientziak
- Komunikazioa eta Informazio Zientziak
- Giza Zientziak (Filosofia, Filologia, Literatura, Hizkuntzalaritza, Historia, Estetika eta Musikologia)
- Arte Plastikoak eta Arte Digitala
- Musika (Konposizioa, Zuzendaritza eta Interpretazioa) eta Opera
- Literatura Sormena eta Teatroa.

Proiektuen iraupena:

Proiektuek 6 eta 18 hilabete bitarteko iraupena izango dute.

Finantzaketa:

Berrogei mila (40.000) euro gordinetara arteko 55 laguntza emango dira.

Eskatzaileen baldintzak:

- a. Eskatzaileak pertsona fisikoak izango dira (ikertzaileak).
- b. Proposatutako proiektua UPV/EHU egin behar bada, eskatzaileak funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izan beharko du UPV/EHUekin eskaera aurkeztu duenetik proiektua gauzatu arte.
- c. Espainiar nazionalitatea edo egoitza Espainian izatea, edo bizileku iraunkorra edo iraupen luzekoa Espainian duten beste herrialde batzuetako nazionalak izatea.
- d. Karreraren erdialdean egotea. Ikertzaileen kasuan, doktorego ondoko etaparen eta irakasle titular edo baliokidearen mailaren artean egotea.
- e. 30 eta 45 urte bitartean izatea.
- f. Deialdiaren 4. artikuluan zehazturiko bateraezintasunik ez izatea.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a. Aplikazio elektronikoa erabiliz betetako eskaera orria
- b. NANaren edo pasaportearen kopia
- c. CV osoa, azken 5 urteetan zehatzagoa izanik
- d. Norberaren ikerketa jardunaren narratiba
- e. Nabarmendutako bost lan edo lagin
- f. Bi aipamen gutun
- g. Proiektuaren zientzi memoria
- h. Aurrekontua
- i. Txosten etikoak, beharrezkoak badira.

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

UPV/EHUko ikertzaileek aurkeztutako eskaerak zehar kostuen % 5a jaso beharko dute aurrekontuan.

OHAR GARRANTZITSUA: 2008ko apirilaren 29ko Erabakian –horren bidez agintzen da UPV/EHUko Estatutuen 315. artikulua ren garapen arautegia argitaratzeko– jasotakoa aplikatuz, irakasle-ikertzaileek ezin izango dute nominan ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.

Eskaerak aurkezteko era eta epea:

2018ko martxoaren 15eko 19:00ak arte

Eskaerak UPV/EHUn aurkezteko prozedura:

Haien proiektua UPV/EHUn egin behar duten eskatzaileek beren eskaeraren aurkezpenaren berri eman beharko dute convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidaliz. Mezuari dokumentu guztiak erantsi beharko dizkiote Ikerketaren arloko Errektoreordetzan artxiba daitezen.

OHAR GARRANTZITSUA: Ikertzaile nagusiak aurkeztu beharko du eskaera, dagokion epean eta moduan, Fundazioaren aplikazioa erabiliz. <https://w3.grupobbva.com/TLFU/tlfu/TLFUServletOperacion?XWnomS020op=recuperarAreas&anno=18&ayuda=IN>

UPV/EHUren datuak eskaera orria betetzeko:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- Ordezkarri legala: Jose Luis Martín González
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa, z/g
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Harremanetarako helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

UPV/EHUko kontaktua:

- Telefonoa: 94 601 80 08
- Faxe: 94 601 35 50
- Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

BBVA Fundazioarekiko harremana:

- Helbide elektronikoa: becas-leonardo@bbva.es

Informazio gehiago:

<https://www.redleonardo.es/becas/becas-leonardo-investigadores-creadores-culturales-2018/>